



Eman hegoak euskarari



Txoria eta ornitologia

Txoriaren eta ornitologoaren kontu hori haur inuzenteak lasaitzeko kontu triste bat baino ez da

JON KORTAZAR



Aspaldi dabil euskal literaturaren zenbait plazetan «txoriaren eta ornitologoaren» banaketa kontu hori. Maiz entzun diot Arantxa Urretabizkaiari esaldi hori esaten. Azken bolada honetan hiru aldiz aurkitu dut –kasu honetan irakurrita, eta ez belarriz entzuna– ditzosozko aipamena.

Lehen-lehenik, eta berriz, Arantxa Urretabizkaiari berari. 111 Akademiako '111' aldizkariak aurpegi betozko ilun baten pean idazlearen esaldia dakar portadan: 'Txoriak eta ornitologoak: Arantxa Urretabizkaiarekin solasaldia'. Bigarren al-

diz, Leire Bilbaori entzun nion hitzaldi batean, zentzuzko mezuen artean tarteko esaldia isuri zitzaizolarik: «Ni ez naiz ornitologia, txoria baino». Hirugarrenez, eta harriduraz izan zela aitortu behar dut, Carlos Marzal idazle valentziarraren 'Nunca fuimos más felices' liburu maitagarrian dator, hasi berria dela liburua, 19. orrialdean: «Jakina da: txoriek ez dakite ornitologiaz».

Kontrajarpenak ez nau inoiz lasai utzi, beti pentsatu izan dudalako literaturaren historiaren eta kritikaren aurkako esaldi bat dela. Baina horrez gain beti begitandu izan zaida-

lako esaldi faltsua dela, esaldi borobilarekin esateko: oker borobila besterik ez. Ahoan darabiltenek eurek ere euren egunerokotasunean mantendu ezin duten esaldia.

Orain hilabete batzuk Harkaitz Cano adiskideak ez dakit zein gai bidean zeukala eta gogoratu zidan esaldi malapartatua. Eta orduan ez nin-tzen isildu. Eta erantzun nion: «Galdetu Arantxari literatur lehiaketa batean epaimahaiko denean, eta maiz ikusi dut horrelakotan, zer ote den: txoria edo ornitologia». Harkaitzek, ohi duen zuzentasun aszetikoz erantzun zidan hitz bakar batez: 'Touché!'.

Bai galdetu Arantxari Irun Literatur Sarietan zer ote den. Galdetu Leire Bilbaori, eta hori ere badabil, legitimitate osoz, sarietan irabazleak aukeratzeko, zer ote den; eta Carlos Marzalek berak ere aipaturiko liburuaren orrialdeetan hainbat sari literarioren epaimahaiko izan dela aitortzen du: ez dakit nongo sariketatan berendiarekin egon zela, halakotan beste urliarekin... Ordu horietan txoriaren eta ornitologoaren arteko itzal mehea oraindik meheago zaiela iruditzen zait. Edo bortitzago izanda, momentu horietan (eta askotan bizi dituzte esaldia darabiltenek momentu horiek) iruditzen zait idazlearen eta kritikaren arteko ate zirrikitia es-tua dela.

Baina, gainera, esaldia ez zait atsegin zeren badirudi jakintza maila ornitologoentzako (kritikarentzat, literaturaren teoriarentzat) geratzen dela eta bizitza idazlearentzat, sorkuntza egiten duenarentzat. Eta puntu honetan erro-

mantizismoaren zantzua oraindik okerragoa eta faltsuago iruditzen zait. Zeren ba ote dago hausnarketarik gabe agertzen den sorkuntzarik? Ongi pentsatu gabe egiten den idazlanik? Zer gertatzen da: idazten dutenean ez dute pentsatzen? Albo batera uzten dute ahalmen hori?

Sorkuntza momentuan ere batera ikusten ditut txoriaren kantua eta kantu hori sortzeko beharrezkoa den pentsakizun mundua. Ala bereizketaren bat-batekotasunak egiten ote du idazlea idazle? Ez dut sinesten oinarri pentsakorrik gabe lanean ari den idazle bategan. Hor ere jakin behar da nondik datorren nor, zer egiten dugun eta zer idatzi nahi dugun.

Txoriaren eta ornitologoaren kontu hori haur inuzenteak lasaitzeko kontu triste bat baino ez da. Hobe lukete erabiltzen dutenek ahaztuko balute.

Zeren azkenean beti agertuko zaie otsoa. Idazleei eta ume inuzenteei.

Bazen behin, ipuina

JON MARTIN-ETXEBESTE

Meta-ipuinekin ipuin meta osatu du Iban Zalduak. Ipuingintzari buruzko hainbat ideia zerrendatu eta idazle bizi-moduarekin lotutako zenbait kezka bistaratu ditu bere azken liburuan, eta literaturako irakasle lanbideari lotutako hainbat kontakizun eraiki ditu: 'Taile-rraren ostein', 'Kongresuan'... Bide horretatik abiatutako kontakizunetako bat da 'Ipuina adulterioa da'; ziurrenik, bilduma honetako lanik borobilena. Bikote harremanean hirugarren bat sartzeak eragiten duen kaosa eta harmonia deskribatzen ditu Zalduak. Antzerako egoera marrazten du 'Julen Ezeizabarrena' ipuinean ere. Garbi erakusten du espazio onirikoa partekatzea beti ez dela onerako...

Ipuinetako zenbait dagoneko argitaratuta zeuden bestelako euskarrietan eta berreskuratu egin ditu argitalpen honetarako. 18 ipuin metatu ditu, guztira, Zalduak. Hautatutako tematiketan

idazlearen posizionamendu ideologikoa euskal literaturako fikziozko obra gehienetan ohi dena baino esplizituagoa ageri da, zirikatzaile. Ipuingintzari neurria hartu dionak baizik ez deza-keen ausardiaz planteatzen ditu jolasak liburu honetan. Idazleak irakurlea harritzea lortzen du ipuin batzuetan hasieratik mahukan gordetako karta aterata. Beste batzuetan, tentsioari eusteko ariketa da ipuinari indarra ematen diona: baloi bat lurrera jausi gabe kolpetxoak ematen dakienaren erakustaldia. Zientzia fikzioa baliatzen du autoreak inongo konplexurik gabe eta zenbait ipuinetan efektu interesgarria sortzen du horri esker, ordu aldatetaren ipuinean adibidez. Beste kontakizun batzuetan etorkizun posibleak eraikitzen ditu historialariak. Arma museora egindako bisitaz diharduen lehen ipuinean, esaterako, karikaturizatu egiten du etorkizuna. Sail bereko bigarren ipuinean, berriz, Katixa Agirrerren 'Berriz Zentauro' eleberriarekiko paralelismoa ezarri liteke. Antzerako zer-bait esan daiteke 'Eskola segregazioa' izeneko ipuinaren eta Uxue Apaolazaren 'Bi-hurguneko nasa'ri buruz ere.



IPUINA ENGINUA DA
IBAN ZALDUAK
Elkar. 280 orr.
22 euro

Ehiztariz mozorroturik

ARANTXA URRETABIZKAI



Goiz batean, justu eguna argitzera doanean esnatzerakoan, ez baneki ze egunetan bizi garen (ezinezkoa, kontrako gaixotasuna baitut, beti dakit ze egun eta ordutan bizi naizen), ez baneki udazken betean gaudela, berehala ulertuko nuke azaroan geundela, agian urriaren bukaeran.

Nola? Ehiztarien tiroek jakinarazita. Hurbiltzen dira ehiztariak gure auzora, aparkatzen dute autoa eta, safari batera doanaren moduan jantzita, abiatzen dira aldapa gora, eskopeta zintzilik. Urtero, udazkenean. Behin kontatu nuen irratian horrelakoetan zerura begiratu eta uso saldoa ikusten badut, iparretik hegora hegan, abisatu nahiko niekeela desbideratu zezatela norabidea pitin bat, ehiztariak zain dituztelako ezku-

tuan. Ez dut ahaztu komentario apal horrek ekarri zidan irain mordoa. Talde antolatua osatzen dute ehiztariak eta berehala sentitzen dira erasoz oldartuak.

Aitortu nahi dut horretan ere kontraesanak ditudala, urtean behin gustura jaten dudala uso gisatu bat, barazki ugarirekin egindako saltsa ilunaz lagunduta, gure txikitako etxean eper-saltsa esaten zitzaion horrekin, tipula, azenarioa, erremolatxa, tomate pixka bat eta piper berde erdia.

Are gehiago, ez zait antzeko ezer gertatzen norbait itsasertzean arrantzan ikusten dudanean, baina bi kasu horietan emaitza berdina da, usoa edo korrokoia. Kanaberaz arrantza egiten dutenak (ia ehuneko ehun gizonezkoak, ehiztariak bezalaxe) ez dira Akab kapitainaz mozorrotzen eta ez dute zaratarik egiten. Ehiztariak bai, pum, pum, pum, egunsentitik eguerdira, batez ere udazkeneko asteburu eta jaiegunetan.

Egia da, era berean, ez dakidala usorik bota duten ala ez, gutxitan ikusten baititut beherakoan. Tiroak bai, tiroak entzuten ditut. Eta ehiztari bat ikusi bezain laster pizten zait, modu automatikoan, hegaztiakiko errukia. Eskerrak aste gutxitako kontua den.

SALDUENAK

FIKZIOA

1 Azken etxea

Arantxa Urretabizkaia. Pamiela

2 M. Ama Eme Ume

Estitxu Fernandez/Erika Lagoma. Elkar

3 Miñan

Amets Arzallus/Ibrahima Balde. Susa

4 Desertuan behatxuloa

Anjel Lertxundi. Alberdania

EZ FIKZIOA

1 Nikole bijotzekua

Edorta Jimenez. Elkar

2 Mandamentu hipermodernoak

Iñigo Martinez. Elkar

3 Isildutako eskuak

Jon Abril. Elkar

4 Begiak zabalduko zaizkizue

Irati Jimenez. Elkar